

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Hasierako onespina ematea Vitoria-Gasteizko udalaren VGbiziz bizikleta-aparkaleku seguruan sartzeko eta aparkalekua erabiltzeko baldintzak arautzeko ordenantzari

2020ko irailaren 25ean egindako ohiko bilkuran, hasierako onspena eman zion Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko udalaren VGbiziz bizikleta-aparkaleku seguruan sartzeko eta aparkalekua erabiltzeko baldintzak arautzeko ordenantzari.

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 203. artikuluan xedatutakoaren ildotik, jakinarazten da dosierra jendaurrean jarrita dagoela, San Martineko udal bulegoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - behea—, interesdunek oro izan dezaten aukera aztertzeko eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko, 30 egun balioduneko epean.

Baldin eta erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin-behinekoa zen erabakia behin betikotzat joko da, besterik gabe.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 28an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE